

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Urria / 281 Zenbakia



PLAN ESTRATEGIKOEI BURUZKO MAHAI-INGURUA EBRÓPOLISEN

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak "Hiriak nola birpentsatu?" izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen. Bertan, PEMB Barcelona, EBRÓPOLIS Zaragoza, eta IMPLAN Culiacán plan estrategikoak aurkeztu ziren.

Mahai-ingurua 2017-2018ko Hirigintzako Pentsamendu Estrategikoko Espezializazio Programaren XIII. edizioaren hasierako Aurrez Aurreko Mintegia ixteko ekitaldiaren barruan antolatatu zuen CIDEUK, Zaragozan.

Bilbao Internationalen proposamenez, Elkarateak “Bilbao-Pittsburgh: Post-Industrial Cities” izeneko workshop-mahai-inguru bat antolatu zuen elkarlanean.

Medellín-Aburráko metropolialdea (Deustuko Unibertsitatea)

Joan den irailaren 18an, topaketa bat egin zen Deustuko Unibertsitatean; helburua Medellín-Aburráko (Kolonbia) metropolialdeko zinegotzi eta teknikariei sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren ereduaren aurkezpena egitea izan zen. Zinegotziak eta teknikariak Bilbao bisitatzen ari ziren Tecnaliaren eskutik. Ekitaldian honako hauek hartu zuten parte: Deusto Cities Lab proiektuaren zuzendari Roberto San Salvadorrek, Bilboko Udaleko zinegotzi Gotzone Zaldunbidek, Bilbao Ria 2000ko zuzendari nagusi Angel Nievak, eta Bilbao Metropoli-30 Elkarteko zuzendari nagusi Alfonso Martinez Cearrak.



“Bilbao-Pittsburgh: Post-Industrial Cities” workshop-mahai-ingurua

Bilbao Internationalen proposamenez, Elkarateak “Bilbao-Pittsburgh: Post-Industrial Cities” izeneko workshop-mahai-inguru bat antolatu zuen elkarlanean. Irailaren 19an egin zen, Bilbao Ekintzaren bulegoetan.



Bilbao eta Pittsburgh hiriak orain dela urte batzuk senidetu ziren, eta, hiri postindustrialak direnez gero, badituzte antzekotasunak; hori dela eta, harreman estua dute.

German Marshall Funden harremanen testuinguruan, Mr. Don Carter Carnegie Mellon Universityko Hiri Post-Industrialen Institutuko zuzendariarekin batera, ekimen bat bultzatu da Bilbora Pittsburgheko ordezkari bat erakartzeko. Pittsburgh Technology Council eta Bilbao International aritu dira horretan, eta helburua izan da Bilboren eraldaketaren historia zein izan den ezagutaraztea.

Zentzu horretan, Bilbao Metropoli-30eko zuzendari nagusia gonbidatu zuten Bilbao Metropolitarra eraldatzeko prozesua zein izan den azaltzeko. Era berean, programan parte



hartu dute Nora Sarasola Bilbao Ekintzako zuzendariak eta Jordi Albareda Fair Saturdayren fundatzaileak. Lehenak egungo Bilbori buruz hitz egin zuen; bigarrenak, berriz, azaldu zuen zertan den eragin soziala, ekintzailetza eta Artea&Kultura lantzen dituen Fair Saturday proiektua.

Bilbao Bizkaia Action Group

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak irailaren 21ean egin zen Bilbao Bizkaia Action Groupen ohiko batzarrean hartu zuen parte. Bertan, besteak beste, gai hauek eztaba- datu ziren: BBAGen eta lantaldeen bilakaera, Bizkaiko turismoaren lurraldeko kudeaketa-plana eta udazkenean eta neguan turismoa sustatzeko egutegia.



Kopenhageko Danish Design Center-DCC (Foru Aldundiaren Jauregia)

Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldea bisitatzen ari ziren Kopenhageko Danish Design Center-DCCren

ordezkarietzat antolatutako jardunaldian parte hartzera gonbidatu zuten Elkarteak.



Danimarkako ordezkariak Christian Basonek eta Runa Sabroek osatu zuten. Bilboren eta Bilboko aldirien eraldaketa-prozesua eza- gutu nahi zuten, baita prozesuan parte hartutako agentziak, eraldaketa ekarri zuen lankidetzaren publiko-pribatua, eta abar ere.

Plan estrategikoen mahai-ingurua (Zaragoza)

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak "Hiriak nola birpentsatu?" izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen. Bertan, PEMB Barcelona, EBRÓPOLIS Zaragoza, eta IMPLAN Culiacán plan estrategikoak aurkeztu ziren. Bilbao Metropoli-30 Elkarteak Bilbao Metropolitarra 2035 hausnarketa aurkeztu zuen.

Mahai-ingurua 2017-2018ko Hiri- gintzako Pentsamendu Estrategi- koko Espezializazio Programaren

Bilbao Metropoli-30 Elkarteak "Hiriak nola birpentsatu?" izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen. Bertan, PEMB Barcelona, EBRÓPOLIS Zaragoza, eta IMPLAN Culiacán plan estrategikoak aurkeztu ziren. Bilbao Metropoli-30 Elkarteak Bilbao Metropolitarra 2035 hausnarketa aurkeztu zuen.

Suitzako kontsulatuaren bitartekaritzari esker, Bilbao Metropoli-30 Schweizer Radio und Fernsehen irratiko kazetari batekin bildu zen; izan ere, interesa zeukan Bilboko eta metropolialdeko eraldaketa-prozesua ezagutzeko.

XIII. edizioaren hasierako Aurrez Aurreko Mintegia ixteko ekitaldieren barruan antolatu zuen CIDEUK.

Halaber, parte-hartzaileek Ebrópolisek bere hiriaren etorkizuna pentsatzeko eta diseinatzeko elkarte gisa egiten duen lana ezagutzeko aukera izan zuten, baita hiri-behaketokian duen eginkizuna eta Zaragozako zenbait proiektu estrategiko ere: La Azucarera eta Huertas Life Km 0, hiri-berrikuntzaren eta iraunkortasunaren arloan, eta Etiopia eta CIRCE Fundazioa, ekonomia berriaren eta energia berrien arloan.



2005etik, PEU Espezializazio Programak informazioa, ezagutza eta esperientzia partekatu du eremu iberoamerikarreko 73 hiritako eta 21 herrialdetako profesionalekin. Lehenengo aldiz egin da Espainian CIDEUK antolatutako aurrez aurreko mintegia.

Elkarrizketa Schweizer Radio und Fernsehen irratian

Suitzako kontsulatuaren bitartekaritzari esker, Bilbao Metropoli-30 Schweizer Radio und Fernsehen irratiko kazetari batekin bildu zen. Interesa zeukan Bilboko eta metropolialdeko eraldaketa-prozesua ezagutzeko, eta lehen zein egoeratan zegoen eta ondoren nola geratu den jakiteko, baita prozesu horretan zein eragilek parte hartu duen jakiteko ere. Elkarrizketa urriaren 4an izan zen, Elkartearen bulegoetan.



Bucaramangako metropolialdea (Bilbao International)

Bilboko Udalaren Bilbao Internationali esker, Bilbao Metropoli-30 Elkartearen zuzendari nagusiak urriaren 19an Bilbao Metropolitarra eraldatzeko eta horren plangintza estrategikoa egiteko prozesua aurkeztuko dio Kolonbiako ordezkari-tza bati. Ordezkaritza UN-Habitat programak koordinatutako bisita egingo duten Bucaramangako metropolialdeko zenbait alkatek eta exekutibok osatzen dute.

Bucaramangako metropolialdea plan estrategiko bat egiten ari denez, ordezkariak interesa du metropolialdearen gobernantzarekin eta finantziazioarekin lotutako gaiekin, baita garraioekin eta zerbitzu publikoekin lotutakoekin ere.



Weiwasser-eko ordezkariak (Alemania)

Bilboko Udalaren Bilbao Internationalen proposamenez, Bilbao Metropoli-30 Elkarteak Bilboren garapenerari eta bilakaerari buruzko aurkezpena egin zuen 2016ko Udako Akademian, Alemaniako Weiwasser hirian. Hori "Hiri-garapen berritzailea, prestakuntza- eta lan-ereduen bidez" izeneko mintegiaren testuinguruan egin zen, eta Bilbok parte hartu zuen, eraldaketa-prozesuan arrakasta izan duen hiri gisa hautatu zutelako.

Topaketa horren emaitza gisa eta eraldaketa-prozesuarekin lotutako eragileak eta erakundeak zein hiria bera ezagutzeko helburuarekin, Elkarteak 2017ko urriaren 26tik 28ra bitartean Alemaniako Wei-

wasser hiriko ordezkariak bat hartzeko eskaera jaso du. Ordezkariak hiri horretako hirigintzaren eta laneratzearen arloan aktiboki parte hartzen duten 10 gizarte-eragilek osatzen dute.

Horregatik, ordezkariak helarazitako interesari erantzuteko, Elkarteak hainbat erakundetako eragileekin batera egingo diren bisitak eta batzarrak proposatu ditu. Hauexek dira erakundeak: Bilbao Ekintza, Bilbao Metropoli-30, Iberdrola dorrea, Euskalduna Jauregia, Guggenheim Bilbao Museoa, Barakaldoko Udala, Inguralde eta San Jos  de Calasanz Ikastetxea, besteak beste.



CVII. eta CVIII. Bilbao Metropoli-30 Topaketak

Azaroaren 10ean eta 17an, Bilbao Metropoli-30 Topaketak egingo dira. Lehena Euskalitek antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europako 23. Astearen barruan egingo da, eta Juanjo  lvarez europazalearen Globernanceko idazkariak parte hartuko du, "Hiritargoa, eskualdeak

Azaroaren 10ean eta 17an, Bilbao Metropoli-30 Topaketak egingo dira; lehenengoa, Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen testuinguruan, eta bigarrena, berriz, Emakunderen Berdintasun Foroaren barruan.

eta Europa” izeneko esku-hartzearen bidez. Eskualdeek eta herritarrek Europa sozialaren aurrerabidean daukaten zeregina azalduko da.

Bigarren topaketa Emakunderen Berdintasun Foroaren barruan egingo da, eta Eva Armestok, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren buruak, “Emakumeen ekin-tzaitza sustatzeko jardunbide

egokiak” izeneko aurkezpen-eztabaida egingo du, Beazen, azaroaren 17an (ostirala).



**KUDEAKETA
AURRERATUA
GESTIÓN
AVANZADA**

6-17 AZAROA / NOVIEMBRE 2017

23 SEMANA EUROPEA

Hiritargoa, eskualdeak eta Europa

Ciudadanía, regiones y Europa

BILBAO
Metropoli-30

KUDEAKETA AURRERATUAREN BILTZARRA
CONGRESO GESTIÓN AVANZADA

Azaroak 10 noviembre • Bilbao

BIZKAIA, ARETOA UPV-EHU

governuko bazkide eta organoak

132. Zuzendaritza Batzordea

Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkartearen Estatutuaren 39. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak urriaren 31n (asteartea) egingo duen bilerarako deia egiten da.

Bileran honako gaiak aztertuko dira, besteak beste: aurrekontu jarraipena eta jardura txostena, 2018ko Aurrekontua eta Kudeaketa Plana, eta "Bilbao Metropolitarrak 2035. Begirada etorkizunari" Hausnarketa Estrategikoaren aurrerapena.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Actívate por el medio ambiente. Periódico Bilbao, 01-10-2017.
- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. El Periódico de Aragón, 29-09-2017.
- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. Finanzas.com, 29-09-2017.
- Pittsburgh se interesa por la transformación de Bilbao. Deia, 20-09-2017
- Una delegación de Pittsburg visita Bilbao para conocer su regeneración. Deia, 19-09-2017.
- Una delegación de Pittsburgh (EE.UU) llega a Bilbao para conocer el proceso de transformación de la ciudad. Europa Press, 19-09-2017.
- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la 'mejor ciudad europea'. El Correo, 06-09-2017.
- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la 'mejor ciudad europea'. El Correo, 06-09-2017.



www.bm30.es/prensa

IRAILAK 1

Hego Koreako ordezkariak.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

IRAILAK 4

Academy of Urbanism-
Hirigintzako Akademiaren
ordezkariak. Bilboko Udala.

IRAILAK 18-20

50 Best antolatzen duen lantalde
teknikoaren bisita. Bilbao.

IRAILAK 14

ANDREkintzailea programa: Zure
enpresaren balio erantsia eta
merkataritza-jarrera. BEAZ.

IRAILAK 18

Medellín-Aburráko
metropoli aldeak. UD.

IRAILAK 19

"Bilbao-Pittsburgh: Post-
Industrial Cities" izenburuko
workshop/mahai-ingurua.
Bilbao Ekintza.

IRAILAK 21

ANDREkintzailea programa:
Bezeroekiko harreman
eraginkorra. BEAZ.

IRAILAK 20-21

TALENTIA/Trebetasunak. Taldeko
coachinga. UD.

IRAILAK 21

ANDREkintzailea programa:
Bezeroekiko harreman
eraginkorra. BEAZ.

IRAILAK 21

Aktibatu + programaren
Jarraipen Batzordea.
Bizkaiko Foru Aldundiko
Iraunkortasuna eta Ingurune
Naturala Zaintzeko Saila.

IRAILAK 21

Bilbao Bizkaia Action Group.
Bizkaiko Foru Aldundia.

IRAILAK 21

TALENTIA/Trebetasunak.
Berrikuntzari eta aldaketara
egokitzeari buruzko tailerra.
UPV/EHU.

IRAILAK 22

Danish Design Center -DCC de
Copenhagen. Foru Aldundiaren
Jauregia.

IRAILAK 27

Koreako Lurralde Antolaketarako
Azterketen Institutuaren bisita.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

IRAILAK 28

ANDREkintzailea programa:
Branding korporatiboa. BEAZ.

IRAILAK 29

Plan estrategikoen mahai-
ingurua. Zaragoza.

URRIAK 4

Schweizer Radio und Fernsehen.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 6

ANDREkintzailea programa:
Enpresen networkinga. BEAZ.

URRIAK 9

TALENTIA/Trebetasunak. Gizarte
Ekintzako tailerra. Lankidetzarako
ekimena. UD/UPV-EHU/UMU.

URRIAK 19/27

ANDREkintzailea programa:
Koherentea da gure estrategia
digitala? Entzunaldi aktiboa
online I/II. BEAZ.

URRIAK 19

German Marshall Fund.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 19

Bucaramangako metropoli aldeko
ordezkariak. Bilbao
International.

URRIAK 25-28

Weisswasserreko ordezkariak
(Alemania).
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 31

132 132. Zuzendaritza Batzordea.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 2

ANDREkintzailea programa:
Koherentea da gure estrategia
digitala? Entzunaldi aktiboa
online III. BEAZ.

AZAROAK 9/16

ANDREkintzailea programa: ETE-
entzako komunikabide sozialak
I/II. BEAZ.

AZAROAK 10

CVIII. Bilbao Metropoli-30
Topaketak. Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 13-17

World Cities. Bilbao.

AZAROAK 17

CVIII. Bilbao Metropoli-30
Topaketak. Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 23

Programa ANDREkintzailea: Cómo
hacer e-mail Marketing sin caer
en el SPAM. BEAZ.

AZAROAK 28/30/14

ANDREkintzailea programa:
B2B marketina / Eraiki zure
harreman profesionalen
sarea Internetez/Social
Selling. BEAZ.

ABENDUAK 14

ANDREkintzailea programa: Zer
egin zure enpresa haz dadin.
BEAZ.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano

Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak

Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

ENTIDAD DECLARADA DE UTILIDAD PÚBLICA
POR EL GOBIERNO VASCO EL 9 DE JUNIO DE 1992